

BERTIZKO BEIRATEAK

Bertizko beirate multzo ikusgarriaren zaharberritze prozesu zorrotz eta zehatza

Ederra da Bertizarena, Malerrekako udalerria (Nafarroa). Hantxe dago Bertizko Parke Naturala, jaurerria izan zena. Zenbait mendez Bertiz familiaren jabetza izana, XIX. mendearen amaieran Pedro Ziga eta Dorotea Fernandez senar-emazte iruindarrek erosi zuten. Hainbat berriztatze lan egin, Aizkolegi mendian eraikin bat egin eta inguruko basoak lehengoratu egin zituzten. 1949an, Nafarroako Aldundiari utzi zioten jaurerria, eta 1984an natura parke izendatu zuten.

Duela hilabetetsutik, zabalik dago “Bertizko argia” erakusketak, parkeko eraikinetako beira-teen inguruan. Halaber, antzinako jaurerriko kaperari atxikitako markesina ia osorik ixten duen beirate modernis-

 **ARTEA /** Xabier Izaga Gonzalez

«Bertizko argia» erakusketan bertako parke naturaleko beirate modernisten multzoa ikusgai dago irailera arte. Mikel Delika beiragile gasteiztarra eta Harri(d)ura tailerreko Amaia Sanchez Bakaikoak zaharberritu dituzte antzinako jaurerriko kaperaren ondoko markesinako beirate ikusgarriak. Zaharberritze prozesua azaldu digute.

ten multzoaren zaharberritze prozesuaren berri jakiteko aukera ere badago. Lau urtarok irudikatzen dituzten hamahiru beirate modernista dira, bi metroko altuera dutenak.

Duela 30 urte, beirateak oso kaltetuta, pieza asko galduta eta berunezko loturak okertuta zeudenez, Javier del Rio Iruñe-

ko beiragileari eraman zizkion zaharberritu zitzaizkien. Hark bere tailerrean eduki zituen, baina ez zioten hasteko agindurik eman, eta, erretreta hartu zuenean, itzuli egin zituen.

2015ean, Nafarroako Gobernua, Vianako Printzea Erakundearen bidez, beirateak zaharberritzeko erabakia hartu eta

Violeta Romero Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikari zaharberritzaile eta proiektuaren zuzendariak Mikel Delika beiragile gasteiztarra deitu zion, haren iritzia jakiteko. Ondoren, Delika bera eta Amaia Sanchez Bakaikoa Harri(d)ura enpresakoa hautatu zituzten, lehiaketa bidez, beirateak zaharberritzeko, lanok bion artean egitea proposatu baitzuten. Bestalde, zaharberritzea Gasteizko eta Ziako (Nafarroa) tailerretan eginda, errazagoa zen prozesuaren jarraipena egitea.

Prozesu horretaz hitz egin du GAUR8k Delikarekin.

ZAHARBERRITZE BEREZIA

Lehenengo pausoa argazki dokumentazioa biltzea izan zen. Beira-teen jatorrizko irudiak antzematea ezinezkoa baitzen. Argazki ugari eskuratu zituzten beira-teen ahalik eta xehetasun gehien berri jakiteko.

Mikelek dioenez, beira-teen zaharberritzea berezi samarra da. Artelan zaharberritzea oro har erregulatu samar dago eta, besteak beste, pieza berrien eta jatorrizkoen arteko bereizketa nabaritu beharra dagoela xedatzen du; beira-teen, berriak, hori ezin dela egin dio, pieza berriek jatorrizkoek baino protagonismo handiagoa har lezaketelako. Batzuetan ezin da muturrera eraman ahalik eta jatorrizko elementu gehien kontserbatzeko printzipioa; esate baterako, pieza bat kontserbatzeak beirate osoaren irakurketa kaltetu dezake, elementu berriak protagonismo handiagoa bereganatuta. «Jarri dituzun elementu berriak ez dira ez goitik ez behetik nabarmendu behar», dio Mikelek. Zaharberritzaile akademiko askok ez omen dute beira-teen berezitasun hori ulertzen, argia ze-

Bertizko beira-teen hondarrak, desmuntatu baino lehen. MIKEL DELIKA




harkatzen duen artelana izate-
tik datorkion berezitasuna,
hain zuzen. «Ezin duzu egin
mosaiko bat bezala. Beirate ba-
tean gauza neutro bat jartzen
baduzu, obra galdu egiten du-
zu. Esate baterako, zulo txiki
bat beira kolore batez estal-
tzen baduzu, hortik sartuko
den argi sortak gainerakoa
ikustea eragotz dezake».

Prozesua oso konplexua izan
da, eta emaitza ikusgarria. Ho-
rretarako, funtsezkoa izan da
berreskuratutako zati guztien
azterketa. Bestalde, berun zati
asko zurixka ageri zirela ikusi
zuten, karbonatatuta. Hori na-
rriadura atzeraezina denez, zati
horiek aldatu beharra zegoen.

PROZESU LUZE ETA ZEHATZA

Urte eta erdian egin dute lana,
eta ez du denbora luzeegia
ematen, prozesuaren berri ja-
kinda. Eman behar zuten pauso
bakoitza aldeztatik Vianako
Printzea Erakundeko arduradu-
nei proposatzen zieten, jakina,
eta Mikelek dioenez, beti erres-
petatu dituzte beren irizpideak.
Lan zorrotz eta zehatza egin du-
te, pieza baten arrastoan suma-
tzen zen irudia eta kolorea oi-
narri, hura berreraikitzeke,
betiere multzo osoarekiko har-
monia bilatuz. Beirate bateko
ninfa baten aurpegia, esate ba-
terako, argazki zahar eta lauso
batetik ateratzea lortu zuten.
Xehetasun nimiño batek ordu
askotako lana eman zezakeen.

Beirak aukeratzeak ere eman
zizkien lanak. Mikelek XIX.
mendearen amaierako eta
XX.aren hasierako beira asko
ditu. Hartara, Bertizen jarri di-
tuzten beiretako asko haien ga-
rai berekoak dira. Pozik ageri da
Mikel neguari dagokion atale-
an elurra irudikatzeko jarri zu-
ten beirarekin, lortutako efek-
tuagatik. Koloregabea da,
bainugeletan jartzen zirenen



antzekoa, zimurtsua, eta beira-
teak jatorriz izan zuena bezala-
koxea. Ez zen egun fabrikatzen
ez den bakarra. Garai hartan
kolore berezikoak egiten zituz-
ten, eta bazekiten horietako bat
Espainiako fabrika batekoa ze-
la, baina itxita dago, eta Lyon
(Estatu frantsesa) topatu zuten
beira gris berdexka hura. Bei-

Goian, beirateak
zaharberritu baino
lehen. Erdian, berun
sarearen mapa. Behean,
amaierako muntaketa.
MIKEL DELIKA

ren koloreak ez ezik, haien
ehundurak ere berdintsua izan
behar zuen. Bestalde, beira ba-
tzuk bikoiztuak dira; alegia,
gainezarritako beira bi, jatorriz-
ko kolorea lortzeko.

IKUSTEN DENAREN ATZEKO LANA

Amaiak eta Mikelek beirateen
egilearen sinadura ere idoro zu-

ten. Jaurerriaren nagusiek
Maumejean Etxeari enkargatu
zizkioten. Uste izatekoa zen ha-
la zirela, kaperan etxe hartako
beste beirate bat dagoelako,
baina dokumentazio falta dela-
eta, ezezaguna zen datu hori.

Amaiaren eta Mikelen lanak
ikerketatik asko izan du. Zati
handi bat falta zaion beirate ba-



ten argazkia erakutsi digu Mikelek, hartu zuten momentukoa. Zati hori agertzen den argazki zahar eta lauso bat ateratu ondoren, eta gero irudiak eta koloreak lortzeko egindako proben beste hainbat.

Lan eskerga horren ondoren, atalik «dibertigarriena» etorriko zen, beruneztatzea, hain zuzen. Izan ere, beirate bat zaharberritzea ez da soilik beirak mihiztatzeko artisau-lana, aldez aurretik jendeak ikusten ez

duen lan astun eta luzea baita. Pieza bakoitzak bere tratamendua darama; esate baterako, haustura bat ez da beti modu berdinean konpontzen, baizik eta batzuk beira bat tarteak konpontzen dira, beste batzuk kobre-hariz... Eta prozedura guztiak, erabaki guztiak eta haien zergatiak lanaren memorian erabat islatuta agertuko dira. «Hau ez dago inolaz ere modurik erosoenean edo zentzurik gabe eginda. Den-dena

Goian, beirateak marrazkien gainean. Behean, beirak aukeratzen. Eskuinean, Amaia Sanchez Bakaikoa bere tailerrean. MIKEL DELIKA



ondo arrazoituta dago. Gogotik egindako lana da», nabarmendu du Mikelek.

Beirateak mugitzeko eta soldatzeko, multzoak zurruntasun handiagoa izan zezan, letoizko ertz bat jarri zuten perimetro osoan, letoia berunarekin bateragarria baita. Bestetik, beirateen errefortzu barrak jartzeko sistema bera ere hobetu egin zuten. Beiratea zeharkatzen duten barra horiek, burdin hariz finkatuta daude, baina burdin

hariak tentsio handiko puntu batean jarri gero, beira apurtu egin liteke. Arrisku hori saihesteko eta beirateen itxura bera hobetzeko asmoz, letoizko profil fin bat jarri zuten, irudien marrei jarraituz. Sistema horrekin, beraz, barrak ikusi gabe beirateak sendotzea lortu zuten.

Artisau eta arte lan ikusgarria egin dute, eta irailera arte ikusgai egongo da Bertizko paraje paregabean.



Amaia Sanchez Bakaikoa, Violeta Romero proiektuaren zuzendaria eta Mikel Delika, Bertizko beirate zaharberrituen aurrean. MIKEL DELIKA

BEIRATEAK, ARKITEKTURA GOTIKOAREN ALTXORRAK, POLEMIKA ITURRI

Joan den hilean Mikel Delika maisu beiragileak hitzaldi bat eskaini zuen Gasteizen, beirateak sortu zireneko testuinguruaz eta historian zehar izan duten erabileraz eta bilakaeraz. Horretaz guztiaz hitz egin zuen GAUR8rekin ere 2016ko maiatzean Gasteizko azken beiragileak. Zenbait kezka ere agertu zituen orduan, oraindik ere badituenak. Horregatik saiatzen da ondare hori ezagutarazten eta Euskal Herriko eta kanpoko beiragileekin harremanetan jartzen. Bertizko beirateak zaharberritzeko prozesuan ere argi ikusi du beiragintzak Arte Ederretako espezialitate bat izan beharko

lukeela, eta beste herrialdeetan bezala lan horretarako irizpideak bilduko lituzkeen erakunde baten premia.

Duela hiru urte, Euskal Herriko beirateak hizpide zituela, Gasteizko Santa Maria katedral zaharrari datxekion Santiago kaperako zenbait beirate aipatu zituen Mikelek. Zioenez, XVII. mendeko beirate haien antzeko batzuk Santa Marian ere izan ziren, baina, 1960an, katedrala zaharberritu zutenean, beirate haiek kendu eta haien ordez berri batzuk jarri zituzten.

Ez da hori gertatu den leku bakarra; are gehiago, badirudi horrelako

jokaera ohikoegia izan dela. Parisko Notre-Dame katedralean ere gauza bertsua egin zuten XIX. mendean. Beirateek berebiziko garrantzia dute arkitektura gotikoan; horrenbestez, oraindik orain Parisko katedral horretan izandako sutearen gainean galdetu diogu Mikeli.

Horren inguruan halako nahasmendua dagoela dio. Badirudi erre den arrosa-leiho txiki bat zaharberritze fasean zegoela, baina arrosa-leiho nagusiak ez direla kaltetu. «Beharbada beroa dela-eta zerbait sufritu dute; litekeena da baten bat sabeldu izana, baina ez dirudi oso larria izan denik», azaldu

du, «edonola ere, nik ez daukat informazio askorik». XIX. mende amaierako beirate batzuk galdu omen dira, baina Erdi Aroko bat ere ez omen da galdu. «Egia esateko, katedral horren gaur egungo estetika XIX. mendekoa da, 'historiko faltsuak' direlakoak egiten zituen mugimendu baten arabera. Eta XIX. mendeko beirate horiek neogotiko edo neoklasikoak dira, garai hartakoak». Orain, segur asko, polemika sortuko dela dio: «Batzuek esango dute zeudenen berdinak, estilo berekoak jarri beharra dagoela eta beste batzuek beirate garaikideagoak jarri behar direla».